



20 ITXASUNTZI ZAHARRA

zeiharka zethorren untzia
bide zehaztuak utzia
zeihen zebilen uretan.
so ziran, jainkoan urari
vela beltz zabaldu zuten
goizaldebako luri hezean
jola zuten haboro
eta arazoak geldirik
zabaldu zuten.

• AISIAREN GIZARTERANTZ

• Txema Larrea: "Literaturak ezin du hizkuntzarik salbatu".

• Depresioa gure artean dabil.

mendi, lur, elhurtza guritan
dizdir argizari zuritan,
zahartu zuhurren egoizak
bele iragarleen elhaide,
han ere geratu ez ziran.

izaro heiotan (sic) neskatxak
ekhi-urrhezko soin exkaxak
ondartzan zautzanak irrikiz,
marinelen solhaz-gai bakhan,
eta han geratu ez ziran

ez irlak ekhitan, ez lurak
jauntzen zituenak elhurak,
zekhusten guztiak deus ere
gogarako ukhan ez zuten.
aitzina joan ziran untzian

untziak zekhartzan
hartaratu itxas-usoak
begira bat eman on
neganatzen ziran
untziko gizonak

uraren lan
ez iguzkiaren
axoltzen ez
hoik untzi
baitziran

lurralde adeitsa
albotiko bidez zethorren
arbatu gabeen untzia.
lur on irritsuak izanak
gatik, ez ziraden gelditu.

izaro soinudun ozenak,
zainako jainko zuzenak
aitziran jauresten
goretan,



TXEMA LA “LITERAT HIZKUNT

4Txema Larrea bizkaitarra da jaiotzez, “Basauriko auzo bateko azken baserrikoa”, baina Nafarroako euskara maite du batez ere. Badarama urte batzuk euskal arloa jorratzen: euskal kultura, soziolinguistika, politika, literatura dira arduratzen dutenak, besteak beste. Bere lanik ezagunenen artean, Miranderen poema eta kritika-lanen edizioak (“Poemak 1950-1966” eta “Miranderen lan kritikoak”) eta “Nafarroako euskal idazleak”, hau Periko Diez Ulzurrunekin batera. Pamiela aldizkari eta argitaletxean hasieratik hartu du parte. HABE, ZUTABE, Zeruko Argia, Punto y Hora, Anaitasuna, Pott eta beste zenbait aldizkarietan eman ditu argitara bere lanak, baita “Egin” eta “El Correo” egunkarietan ere.

Udazkeneko hegohaizeak eztabaida-giroa ekarri du euskal idazleen artera. Hortik abiatuz, soziolinguistikaz, euskararen eta euskal literaturaren ajeez eta abarrez mintzatzen zaigu ondorengo elkarrizketan.

GALDERA. - Azken hilabeteotan zala-parta handia izan da euskal idazleen inguruan. Aipatutako gaietan “Literatura eta Konpromisoa” izan da polemikoa, agian. Zer kontatu ahal diguzu honetaz?

ERANTZUNA. - Entzun eta prentsaren bidez jakin dudana mintza naiteke bakarrik. Gaia, izatez **pitukeria** hutsa da, gauza bat bait da Literatura, Celine edo Eliot eskuindarrek zein Galeano edo Gil de Biedma ezkertiarrek egin eta egiten dutena, eta beste bat, aurrekoarekin zerikusirik ez duena, konpromiso politikoa. Edonork eraman dezake konpromiso hori **bere baitan**, hau da, idazle batek, prostituta batek, apez batek onar dezakete, baina inor gutxi hartzen du.

Ikustekoa da, bestalde **-irriegin-garria** edo negar egitekoa, zegur ez dakit-zein den ustezko iraultzaile horien **bihoz-ñoak** eskatzen dien konpromiso-maila. Partidu politikoetan sartu ez, noski!, bestelako erakundeetan, batez ere armatuetan, ezta pentsatu ere. Egia da zenbaitek hildako gudarien omenez poematxoak eta liburu-eskaintzak egiten dituztela. Ez naiz ondo gogoratzen, baina Joxe Azurmendiren poema bat datorkit burura, “baina poetarik ez zegoen frentean” edo halako zerbait dioena.

G. - Zer iruditzen zaizu Jon Juaristiren jarrera?

E. - Juaristik egiten dituen kritikak, azken bi liburuetan agertzen direnak,

nire idurikoz, euskaldun askok eta euskaldun abertzale frangok onartu ditzake. Diferentziak beste nonbait leudeke, proiektu politikoan, funtsean. Berak Estatua, Estatu Espainola eta dagoen Konstituzioa **beharrezkotzat** dituelako eta beste askok ez. Gauzak horrela, ez dakit zer pentsa **egotzi** zaizkion kritika gehienez edota, klarkiago, ustezko iraultzaile horien jarrerez, eskema bat eta bera bait dute Jaurlaritzakoek eta idazle horiek.

G. - Nola eskema bat eta bera? Argitu hori, mesedez.

E. - Eusko Jaurlaritzak behar dituen nortasun, aitorten eta legitimitate-argiriak, ikurriña, himno eta beste sinboloez

PITUKERIA. —Txorakeria.

BERE BAITAN. —Bere barnean. En sí, en su interior.

IRRIEGINGARRI. —Parregarria. De risa.

BIHOZÑO. —ño atzizkiak “txikia” adierazten du. Corazoncito. Era berean: andereño, maiteño...


NERE IDURIKOZ. —Nire iritziz. nire ustez, nirekiko.

BEHARRETSI. —Beharrezkotzat jo. Considerar necesario.

EZ NEKIKE. —Ez nuke jakingo. No sabría.

EGOTZI. —Imputar.

ARRREA: URAK EZIN DU ZARIK SALBATU"



kanpo, kultur mundutik bait datozkio. Horrexegatik laguntza ederra eman dio sortarazi duen euskal zinemari, bere ize-na lau haizeetara eramango duelako; horrexegatik bi orkestra sinfonikoak; horrexegatik, halaber, Euskal Mundu Biltzarrea. "Esto demuestra que la cultura vasca existe" esan **bide** zuen Joseba Arregik. Aipatu arrazoiengatik, eta gure hizkuntza bultzatzearen, Eusko Jaurlaritzak laguntza handiak eman dizkie bai euskarazko produktioari, baita euskal idazleei ere. Honexegatik harritu nau iraultzaile subentzionatu horien kritikak eta kopetak, Mendebaleko Gobernuak, Jaurlaritzak, behar duen autorepresentazio kulturala, neurri handi batean -Europako herri zapalduetan, Balentzian edo Asturiasen-, idazle iraultzaile horiek ematen bait diote.



Literatura, gainera, gerraurreko plan-teamendu bati segituz, gure hizkuntza-

ren ekintza nagusia bihurtu nahi dute eta literatura horren kontra doana-**doakee-na**, hobeto esanda-hizkuntzaren kontra omen doa eta, ondorioz, baita herriaren kontra ere. Horrela bakarrik konpreni daiteke Juaristiren hitzak sortutako eskandalua. Ez dakit, bestalde, euskarazko testuen ediziorako dirulaguntzak ez ematea erabakitzen dutenak, Sakanako apez zein Baztango irakasle izan, zergatik izango diren Jon Juaristi baino euskaltzaleago.

TXEPETXEN "UN FUTURO PARA NUESTRO PASADO"

G.- Azken hilabeteotan "Txepetx"-en obrari buruz idatzi izan duzu. Hain inportantea al da Sánchez Carrión-en lana?

E.- Orain arte ibili gara mende honen bigarren hamarkadan Luis Eleizalde "Países y Razas" eta "Cuatro Conferencias" izeneko liburuetan egindako planteiamenduen arabera; gerraurrean Aitzol eta Lizardik eratu zituzten, **gerraostean** Zaitegi eta beste saiatu ziren aurrera eramaten Amerikako erbestetik, baina alferrik. 1956.tik aurrera Krutwigek birmoldatu zituen, denboraldi berriei egokituz, eta Txillardegik zabalkunde-mailako artikuluen bidez eman zituen aditza. Txepetxek, aintzindarien aportazioak kontutan harturik ere, beste modelo bat eskaintzen digu, elementurik inportantea euskaldunengan, baskofonoengan, kokatzen duelarik. Deigarriena, nik



uste, espazioen teoria dugu. Labur esanda, hizkuntza desagertzen da hainbat funtzio sozialetatik desagertu denean. Funtzio hauetan **aienatz**en da, berriz, hiltunen baitako jarrera nagusietan, beste hizkuntza bat nagusitu denean. Txepetxek, espazio sinbolikoak eta hizkuntzaren funtzioak elkarrekin lotzen dituen neurrian, hizkuntza galtze prozesua aldi-katu ere egiten digu. Hobe, hala ere, "Un futuro para nuestro pasado", haren liburua irakurtzea, edota **leizale** handia ez denak "Lengua y pueblo" irakurtzea.

G.- Zu bizkaitarra zara, Basauriko auzo batekoa, hain zuzen. Nola bururatu zaizu Nafarroako euskal idazleen antologia egitea?

E.- Gure etxean, Basauriko Lapatza auzoko baserri batean, euskara gutxi egin dugu beti, nahiz eta gurasoak euskaldunak izan. Euskarara afizionatu nintzenean, bizkaiera ez zitzaidan aproposa iduritzen, ezta ezertarako ere gainera, Arrigorriagako **amamarekin** hitz egiteko ez bazen. Izan ere, bizkaiera zen, niretzat behintzat, baserriarren mundua, autogorrito linguistikoa, "Agur" aldizkari kontserbadorea eta baita Bizkaiko Eliza Katolikua. Batua, ordea -egia esan, gipuzkera zen nik ezagutzen nuen batua-, dotoreago, iraultzaileago ere iruditzen zitzaidan. Hartaz geroztik konturatu naiz oker nabilela gauza askotan, bizkaiera zaharra, kasu baterako, **arrant** polita bait da. Uste dut, hala ere, Aranaren eskola ez zela laguntzarik hoberena bertako euskara eta euskaldunentzat, lehen-dik zituzten konplexuak **areagotu** bait zituen. Ezin da **atzendu**, XIX mendeko Pizkundea bezala, euskal nazionalismoa ▶

BIDE.—Omen.

DOAKEENA.—Joan daitekeena. Que puede ir.

GERRAOSTE.—Postguerra.

AIENATU.—Desaparecer.

LEIZALE.—Irakurtzalea. Aficionado a la lectura.

AMAMA.—Amona.

ARRONT.—Oso.

AREAGOTU.—Haundiagotu. Llevar más lejos, agrandar.

ATZENDU.—Ahaztu.

sortzez —eta bokazioz ere bai, esango nuke— hiritarra izan zela, euskara folklor-mailan utziaz edota, gehienez jota, erdarazko testuen **apaingarri**. Bilbo zen gerraurreko nazionalismoaren motorea eta Bilbo erdaldun hartako abertzale zenbaitek, euskaldun berriek, “Euzkeltzale Bazkuna” batasunaren bidez, euskara idatzia mundua kontrolatzen zutela. Euskara ondo jakin ez eta Aranaren eskolakoak izaki, gainera. Ahalaz eta aginteaz kanpo, hauek eta beren euskaramolde arrotz eta antiherritarrak, beren dogmatismoak, beldurtu egin zuten, nik uste, Bizkaiko euskaldun asko.

G.- Ez diozu erantzun galdeari: zergatik egin duzue Nafarroako idazleen liburua?

E.- Egin dugu Nafarroako euskara gustatzen zaigulako. Ez da oraingo kontua. Duela bederatzihamarren bat urte Nafarroako **bestaldietan** eta Iruñeko osatuetan, batipat, juntatzen ginen edota halako ibilaldi linguistikoak egiten genituen Periko Diez de Ultzurrun, (jr), Jose Joakin Villanueva, Felipe Alegria, Xabier Pardo eta besteren batek. Nafarrera Meridionalari buruzko eskuizkribuak elkarri pasa eta nafarreraren alde zerbaitto **egin gogo genuen**, alferkeriaz, ordea, egin ez duguna. Liburua ahal bezala egin dugu, genituen materialeak bilduz.


Badira bestelako arrazoinak ere.

Besteen artean, euskalkien asuntua, erabilteta, funtzioak ez direla **artoski** planteatu, ez irakaskuntzan, ez prentsan, ezta beste alorretan ere. Hizkuntza batua, standarra, egoki da eta zuzen (mezako hitzetan esateko) segun eta non, zenbait lekutan, zenbait alditan, problema nagusia usatzeko alorak mugatzea izaten delarik. Hizkuntza standarra ez bait da beti aproposena edozertarako eta nonahi erabiltzeko, eta leku guztietan inposatu nahi izateak eta hartan aritzeak auzi eta **kalapitak** besterik ez ditu ekartzen. Nafarroako euskararen aldeko jarrrera honetan gipuzkoentzismoaren kontrako zerbait ere bada, noski!

EZ DITUGU EZAGUTZEN GEURE HIZKUNTZA ETA LITERATUR TRADIZIOAK

G.- Ematen du zuretzat literaturak ez duela inongo zereginik euskalduntze-prozesuan ...

E.- **Zerbaiska** bai, baina gauza handirik ez. Literaturak ezin du hizkuntzarik salbatu. Gizarte zatikatu honetan, euskara da arrantzale, laborari eta obrero batzuen, azpisektore baten hizkuntza, hortaz. Kondizio horietan, subgizarte baten mintzabidea subhizkuntza bat izaten da eta, muga politiko-sozialak direla eta,



bertatik sortzen den literatura subliteratura bat izango da, apika. Subhizkuntza eta subliteratura-egoeratik irteetako bide bakarra aldakuntza askori lotzen zaio, praktikan eguneroko hizkuntza izateari, hau da, usatzen den hizkuntza eta leitzen den literaturari.

Bixtan da, gainera, hizkuntz ereduak behar ditugula, euskalkien bidez eta orain arteko baturatze-prozesutik datozenak eta, baita ere, literatur ereduak, hizkuntz mailak ezagutzetik, tradizio eta itzulpenetatik, idazle onen lanetatik sortzen direnak. Zoritxarrez, tradizioa urri eta registro gutxi izateaz landara, horiek ez ditugu ezagutzen; itzulpenak, berriz, gure dependentzia kulturala handiagotzeko izaten dira. Pentsa ezazu, musikan Hego-Afrika, telebistan eta Ertzantzaren tresnerian Alemania baldin badira eredu, kultur mailan España dugula. Bai literaturan, bai kritika literarioan, baita itzulpenetan ere. Oihartzunak bakarrik geureganatzen ditugu. Italianoek ingelesetik



“Orain arte Luis Eleizalde mendeko honen bigarren hamarkadan egindako planteiamenduen arabera ibili gara. Txepetxek beste modelo bat eskaintzen digu”.

APAINGARRI.—Adorno.
BESTALDI.—Jaia, festa.

EGIN GOGO GENUEN.—Egin nahi genuen.
egiteko gogoia genuen.
ARTOSKI.—Kontuz, arretaz. Con cuidado.

KALAPITA.—Istilua, zalaparta.
ZERBAISKA.—Zerbait + ska. Zertxobait.



"Bideak beti izaten dira, baita infernurako ere".

ARGAZKIAK: SANTIAGO YANIZ

itzultzen dute, frantsesek italieratik, es-
pañolek frantsesetik eta euskaldunok
—egun, hilabete edo urte batzuetara— es-
pañol hizkuntzatik, eta azken denboral-
dian "Rinconete y Cortadillo" eta an-
tzerakoak, gure kultur kolonizazioa
osoago izan dadin edo. Egia da kultoe-
nek frantsesetik itzultzen dutela espai-
ñolez aspaldi publikaturik dagoena, edo

aipatzen dutela "El País"-eko erredakto-
reek frantses batengan (Finkielkraut, ka-
surako) konprenitu dutenaren euskal
bertsioa. Salda zikin hori da euskaldu-
non edaria.

*G.- Ez zara oso baikor. Biderik ez
duzu ikusten, hortaz?*

E.- Bai, bideak beti izaten bait dira,

infernurako ere. Gurean, proiektu politi-
ko bati lotuak ikusten ditut, eta, horren
barruan, helburuen jerarkizazio bati,
Txepetxek bere azken liburuan erakutsi
joeretatik, eta, bestalde, apal-apal, gare-
naz eta ez garenaz ohartzeari. Bada Mo-
koroak gerraurrean egindako liburu bat,
"Genio y Lengua" izenekoa, eta euskara
eta euskal literaturaren gaitzez ari garela,
badago horretan aipaera ezin hobe-
a, oraintxe ere aplikagarri dena. Zau-
de apur bat. Hauxe duzu:

"Siendo, pues, indudable que NO
TODO ESCRITOR está necesariamente
capacitado para expresar en euskara
TODO LO QUE sabe; tengamos asimis-
mo la franqueza y el valor de confesar,
aunque parezca paradoja, que habrá
ocasiones en que lo patriótico para el au-
tor sea ABSTENERSE DE ESCRIBIR
(para el público); y lo patriótico para las
autoridades responsables, NO FOMEN-
TAR SINO COARTAR cierta producción,
y facilitar en cambio a los necesitados de
estudio los medios de aprender.

No olvidemos que hay remedios con-
traproducentes y ... amores que matan".

